

• ERREPORTAJEA BONSAIAK • GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN ARIGERA  
• KULTURA ELGOIBARKO HERRIA INSTRUMENTU TALDEEN I. LEHIAKETA

# Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA • 2002ko maiatzaren 30/X. urtea/403. zkia

**BON SAI, lorontziko zuhaitza**

EZ DA GERIZPE BAKO ARBOLARIK (esera zaharra)





rrnw

EUS

elgoibar ikastola

 1111  
 PARTAIDE  
 ikastolak

111X(DU 011311 LE'17 11150  
 IKASLEEK GAZARTI ZILIA=2:141 Ei  
 INGELESEZ IKASTE 1311112.

ELEANITZA

ELGOIBAR IKASTOLA INFORMA a0  
 ETA KOIVILJNIKAZIO TEKNOLOG  
 10 IKASTOLA PILOTOETAKO BAT DA.

EGUNERATUA

ELGOIBAR IKASTOLAN HIRU HILABETEZ  
 BEHIN IKASLE BAKOITZAREN  
 SEGIMENDUA EGITEN DA.

SEGIMENDU INDIBIDUALIKATUA

LAN BAZKID EK:- [IRAKAISLE, ADMINISTRAZIO  
 ETA EZ DOZENTEEK] ETA BAZKIDE ONURA1 IINEK  
 [IKASLEENFAIV1,4'\_'K] CISATU

Til ATSEGINA

2 URTETIK 1BRA BITARTEKDTEZKUNITZA, f  
 .1/NNITOKI ZERBITZUA ETA ESKOLA 01113113E-1 APARTE  
 IKASLEEZ ARDURATZIEKO Z14BITZUNK.

INITEIGRALA

**BATXILERGORAKO**  
**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
**Maiatzaren 2tik 10era**



## Artium


Joan den ostiralean Gasteizen Artium izeneko arte modernoko museoa inauguratu zuten. Azken urte hauetan horrelako leku ugari irekitzen ari dira Euskal Herrian. Lehenengo Guggenheim-a Bilbon, geroago Kursaal-a Donostian eta orain Artium-a Gasteizen. Ni ez naiz artean aditua ezta arkitekturan ere ez, baina, eraikuntza berri hauek ez ditudala

batere atsegin esan beharra daukat. Modernoegiak dira eta hiru hiriburu hauen oreka estetikoak apurtzen dute, batez ere Gasteiz eta Donostiakoak.

Bestalde eraikuntza hauetan gastatu den dirutza gehiegizkoa iruditzen zait. Diru hori hiriburu hauetako biztanleriaren onurarako beste era batetan gastatu daitekeela uste dut. Museo berri bat nahi baldin badute egin dezatela, baina 8.000 milioi... ez al dira milioi gehiegi? Badakit horrelako edifizioek turismo ugari erakartzen dutela (eta horrek azken finean diru gehiagoren sarrera adierazten duela) baina, hainbeste diru gastatu gabe eta hiriburuetako oreka estetikoak apurtu gabe egin daitekelakoan nago.

**"Bestalde eraikuntza hauetan gastatu den dirutza gehiegizkoa niji".**

Mireia Garrido



## Gizakiez eta zaborraz

"Irla bakarti batera eramango zenituzkeen hiru gauza?" galderari zenbat aldiz erantzun diozue honezkero? Beno, nik ez dizuet galdera bera errepikatuko, baina sasi-psikoanalista moduan arituko naiz halere. Nire galdera hurrengoa da: "Irla bakarti batera hiru gauzarekin joan eta handik urte batera itzuliko bazinete, zenbat zabor utziko zenukete bertan?"

Ikaragarria da gizakiok zaborra sortzeko dugun erraztasuna, edo hala da behintzat estatistikek erakusten digutena. Euskaldun bakoitzak laurhun bat kilo hiri-hondakin sortzen ditu urtero! Robinson Crusoe euskaldun batek ez lituzke urte asko behar izango irla bakartia zaborrez gainezka izateko.

Patxo Telleriak ("Theodor Zakar" pertsonaiaren paperean) egi borobil-borobilla botatzen du Maskaradaren "Kontenedore baten istorioak" antzezlanean: "Zaborra gizateria baino pausu bat haratago dago. Are gehiago, zergatik dago gizakumerik munduan? Norbaitek egin behar zuelako zaborra."

Deskartesek gizakion existentziaren froga pentsatzeko ahalmenean zegoela zioen. "Cogito ergo sum". Beno, gure pentsatzeko ahalmena horrenbeste erabili gabe ere, gure existentziaren froga errazagoa aurki dezakegu:

"Zaborra non, gizakia hor". Izaki extralurtarrek ere jakingo dute honezkero, gure planetaren inguruan bost mila tona zabor jarri bait ditugu jiraka. "Hemen gauder esateko modu xelebrea geurea.

Alberto Ansuategi

Kexak .....	5
InOtZ motZ .....	
gehigarria .....	13
kiRolAk .....	0
aGenda .....	



## ELGOIBAR = HELGOIBAR

Lerro hauen bitartez, udaletxeak Elgoibarko mugimendu musikalaren aurka burutzerako dihoan eraso salatu nahi dugu. Dakizuenez, Elgoibarren badira hainbat musika estilo jorratzen dituzten taldeak. Talde hauek, lokal falta dela eta, egoera penagarrian daude, edonolako zokoetan entsaiatzen eta inongo laguntzarik gabe.

Orain dela urte batzuk, Elgoibarko udaletxearen eskuzabaltasunari esker, guztiz erruinetan zegoen fundizioa entsaiatzea lortu genuen. Nahiz eta peritoen txostenak arrisku larria zegoela esan, udaletxeak bertan entsaiatzea laga zigun, argi-indarra berak ordainduaz (ura ez, hau ez baitzegoen). Bertako 3 lokal txikietan 6 talde hasi ginen entsaiatzen.

Lokalen egoera tamalgarria ikusita, Fundiozioko gazteak Udaletxearekin hitz egiten saiatu ginen. Proposatu nahi genuen proiektua, Elgoibarko musika talde guztiek lekua izango luketen lokal batzuk prestatzea zen.

Udaletxeak ez zuen onartu gurekin hitz egitea, eta horretaz gain gutun bat eskura entregatu zigun: Fundizioa desalojatzeko ordena.

Herritarrok, hau da gure egoera. Horregatik laguntza eskatzen dizuegu. Egoera hau aldatzeko martxan jarriko diren ekintzetan parte hartzea eta sortzearekin dagoen Elgoibarko Gazteen Musika Elkartearen (EGME) bazkide izatera konbidatzen zaituztegu, hau gunla herriaren onurarako izango delako.

EGME

## AUTODETERMINAZIOA ETA HIZKUNTZA

Alderdi Jeltzaleak autodeterminazioaren diskurtsoa bereganatzea, EHren ingurutik botoak lortzeko estrategia dela uste dut. Hauek, badakite ez dagoela lau probintziak prozesu horretan sartzerik, Nafarroan biztanleean gehieneko zabal batek nahi ez duelako eta Araban arazo larriak sortuko litzukeelako. Halere, gaia prentsan agertzearen poderioz, askok pentsatuko dute independentziaren ate aurrean gaudela. Neuk, berriz, herri hau suntsitzen ari garela diot. Euskal Herria eraikitzea, gizartea oinarritzko balore batzuen inguruan integratzea da, nazionalista eta nazionalista sentitzen ez direnak, denak.

Baina, momentu honetan, zatidura inoiz baino handiagoa da. Ez dago esan beharrik, herri batek diferente sentitzeko arrazoiren bat badu, beraz hizkuntza dela. Eta abertzale sentitzen garen askok eta askok ez dugu geure harremanetan erabiltzen; ez gara geure seme-alabei hizkuntzaren erabilpenak duen garrantzia transmititzeko gai ere.

Bestalde, Euskera nazionalismoaren erreibindikazioa izan den neurrian, berarekin identifikatzen da eta gaur egungo enfrentamentu giroan, nazionalista ez direnak bere seme-alabak D ereduan matrikulatu arren, Euskera hizkuntza propio bezala barneratze idealarengandik inoiz baino urrutiago gaudela nabarmena da. Honela ez dago Herririk!

Beraz, oso garbi daukat "autodeterminazioaren atajoak" ez daukala irteerarik eta bertatik aurrera egin nahian pasatzen den denbora, herri bakar bat eraikitzearen bidean (luzea baina irekia) galtzen ari garela.

Juanjo Baztarrika

# Urruzunoren begi ezkutua Metroa



Metroko sarreran eskean dabilen mutiko bat egon ohi da beti, eta goizero irribarre egiten dion arren, sekula ez dio zentimorik emango.

Pausu zaparradak adierazten du badatorrela. Takoidunak, lokarri solteak eta sandaliak, denak batera.

Alde egin zuen mundu berrira, hark eta honek, edo honek eta hark behartuta,

edo berak nahita. Eta kolore eta arraza

guztietako ikasle, hippie eta abokatuak ikusten ditu bagoian egunero, eta denak gaizki ahoskatutako "Good Morning" batez agurtu arren ez du bat bera ere ezagutzen. Hain handia baita New York, hain txikia bere herria!

Geltokia azkenean, ondoren beste bat. "Where are you from?" galdetzen zioten askotan; hasierako hilabeetan BASQUE COUNTRY harro batez erantzuten zien. Gaur, ordea "I'm from Europe" apal bat esan du. Tunela dator, berarekin iluntasuna. Trenak ez du sekula bere herrira eramango.

Maite Uriarte

## ASTEKARIA

# BaRR.en

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
443

pu adatea:  
sr 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-maila:  
barren@topagunea.com  
Helbide informatikoa:  
www.topagunea.com/barren  
ARGITARRATZAILA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNVALEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jon Inald Lasa  
KAZEIARLAK Irati Agineazallegi, Asier Grbea Poeluxrain  
Amala Erkizia MAKETATZAILA Iker Giego ADIONISTRAZ/VA  
Amala Podriguez Gensiffssa Jon Peli Udguen  
KOLABORATZAILAK Ainboa Lodoso, Nestor Fuente, Pello  
Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansualegi, Edume  
Elbao, Golzon Arrieta, Iorea Peroz de Albeniz, Jokin  
Martinez, Morese Arregi, Juanito Gorostiza,  
Ainboa Andonegi, Kokoe 11.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO  
ISAERA ZAITAIMA Gotzon Garalaren liburutik MPFIMATEGIA  
Gertu Koop. E. TIFUSCA 4.025 ele. LEGE GORDAILUA SS-  
1.038192 I58K 1139-1855

ELGOISAIKO &amp;&amp;&amp;&amp;&amp;&amp;&amp;

Elgoibarko Udalak, Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldirkaria.

rez kutxa  
SURF ESNEINDANOBAT  
INDAGINTZA INDUKTIBOLAKGOITI  
GRUPO DANOBAT

EITARTA

 KEXA

- Urasandin, Elgoibarko Herri Eskolaren ondoko parkean, edadeko jende asko ibiltzen da pasioan. Ordea, lau eserleku baino ez dago. Lehen gehiago zeuden, baina zaharkituta zeudelako aldatu zituztenean, lau bakarrik ezarri zituzten. Ez dira nahikoa han dabilen jendearentzako.




- San Frantzisko iturri parean zulo arriskutsua dago. Jende ugari dabiI kexuka sarri trabatu egiten delako bertan.

- Euskal Herriko Itzuliaren egunean, Batasunaren ilegalizazioa salatuz, presoek etxeratzea, tortura salatuz, Autodeterminazioa eskatuz, 20 pankarta jarri ziren herrian. Alkateak denak kentzea agindu zuelako, gure kexa.

 TXALOA

- Jose Mari Gabilondo, C.D. Elgoibarko presidentea, pasa den dornekan infantilen partidu erabakiorra ikustera Mintxetara hurbildu ziren zaletuak txalotu eta eskertu nahi ditu, klubaren izenean. Giro aparta egon zen eta zaletuen anhoek zeresan handia izan zuten azken garaipenean eta noski, baita mailaz igotzeko ahaleginean ere.



## Madrilgo Gobernuak langabezia-prestazioak murrizteko egindako erreformaren aurka azaldu dira sindikatero7

### Globalizazioak lan esparruan izango duen eragin hazkorra ere salatu zuten Maiatzaren lean

**M**aiatzaren lean, asteazkenean, Langilearen Nazioarteko Eguna izanik, sindikatuak, kalera atera eta beraien aldarrikapenak jendaurrean azaldu zituzten. Euskal Herriko lau sindikatu nagusienek manifestazioak egin zituzten hiriburuetan lema ezberdinak erabiliz.

#### CCOO

"Zure eskubideak: enplegua, berdintasuna, 35 ordu" izan zen CCOOek erabilitako lema. Besteak beste, lan prestazioetan murrizketarik ez egotea, Euskadiko enplegu-politikaren eta elkarrizketaren beharra azpimarratu zituzten. Bestalde, aurrez, apirilaren 26an, CCOOek deituta lan istripuen eta gaixotasunen aurka eta prebentzio neurriak zein azterketa medikuak eskatzeko ordu beteko greba egin zuten.

#### ELA

ELAk erabilitako leloa "Hau alda daiteke" izan zen. Beraien esanetan "globalizazio neoliberalaren emaitza dira kontratu gero

eta eskasagoak, soldata urriagoak, lan baldintza okerragoak, kaleratzeak, enpresen lekualdatzea, gizarte-babesaren eraispena, langabeziako aseguruaren murrizketa...". Sindikatuaren zeregina da ELAren ustez, "langileen defentsa egitea eta aberastasuna eta boterea bereganatu nahi dutenen aurkako erresistentzia eta borroka antolatzea".

#### LAB

LABek estatu espainiar eta frantsesak esparru sozio-laborean egiten dituzten "eraso gogorak" salatu zituen. "Madrilek iragarri berri digu azken neurri antisoziala. Langabezia prestazioak murriztu, langileak are merkeago kaleratu eta prekarietatea areagotu nahi dute", dio LABek maiatzaren Ierako prestatutako idatzian. "Euskal Esparru Ekonomiko eta Soziolaborearen premia" ere aipatzen du.

#### UGT

Azkenik UGTk "Langabezia babesaren hobekuntza oraintxe bertan" lelopean egin zuen manifestazioa. Enplegu betea

beharrezko eskubideekin aldarrikatt zuten batetik. Bestalde, Gobernuak langabezia prestazioaren aurrean egin asmo duen erreformaren aurka agertu ziren. Erreformak aurrera eginez gero greba orokorrerako deia egiteko asmoa ere azaldu zuten.



## Arregitorren, babes ofizialeko etxebizitza bloke bat eraikiko dute

### Lanbide Heziketa Institutuaren aldamenean egingo dute eraikina

**A**rregitorren, babes ofizialeko etxebizitzak egin behar zizutela-eta bertako bizilagunek ezadostasuna adierazi eta proiektuari alegazioa aurkeztu zioten. Izan ere, hasieran Udalaren asmoa etxebizitza bloke • berria autopistaren gaineko partean, Erretxindirako zubiaren ondoan eraikitzea zen; hau da, lehengo etxeen aldamenean. Baina bizilagunek aurkeztutako eskarien artean etxe berriak oraingoetatik aparte eraikitzea zegoen.

Kokaleku berria

Udalak Arregitorreko bizilagunen nahiak kontuan hartu eta babes ofizialeko

etxebizitzaren kokalekua aldatzeko erabakia hartu zuen azken plenoan. Honela bada, eraikina Bernardo Ezenarro Lanbide

Heziketako Institutuaren aldamenean egitea onartu zuten EAJ-PNV, EA eta PP alderdien aldeko botoekin. Honela, hasieran pentsatutako kokalekua, errepedez beste aldera dagoena, berdegune moduan erabiltzeko proposamena egin zuten. Batasuna alderdia ez zen ados agertu erabaki honekin; beraz, botoak emateko orduan abstenitu egin zen. Beraien esanetan, Babes Ofizialeko Etxebizitzak Institutuaren ondoan kokatuz gero, ikastetxearen garapena edo hedapena mugatuta geratzen da.



*Bizilagunen eskariz etxebizitzak LHI aldamenean eraikitzea erabaki du Udalak.*



## Urasandiko fundizioa, malatzaren amaieran uzteko agindua jaso dute bertan entsMaUen duten taldeek

**1**996tik hona Urasandi azpian dagoen fundizioa musika hotsez bete da, baina maiatza izango da bertan kitarra, baxu, bateria eta ahots ozenak entzun ahal izango ditugun azken hilabetea. Udaleko Hirigintza sailean fundizioa bota eta bertan rotonda bat egiteko proiektua dago, eta tartean herriko musika talde batzuei bertan biltzeko eta entsaiatzeko aukera eman badiete ere, maiatzaren amaierarako fundizioko Iokalak uzteko agindua eman diete. Orain 5 musika talde biltzen dira fundizioan eta garai batzuetan gehiago ere egon dira. Musika taldeek entsaiatzeko lokalak lortzeko arazoak dituztenez, Udaleko arduradunekin hitz egiteko eskaria egin dute, arazoari konponbideren bat aurkitzeko asmoz; baina, oraingoz, ez dute ezer lortu. Honen aurrean mobilizazioen bat egingo dutela adierazi digute, eta prestatzeko denboraz larri badabilta ere, kontzerturen bat egitea-edo izango litzateke beraien nabia.



### Batsuna alderdiaren illegallizazioaren aurkako sinadura bilketa egingo da Elgoibarren

**S**egi gazte erakundea eta Askatasuna legez kanpo utzi ostean, Batasuna ilegalizatzeko saio politikoa egin du Espainiako Gobernuak. Horren aurka protesta egiteko alderdi politiko, sindikatu zein gizarteko alor ezberdinetako 100 lagunek manifestu bat sinatu dute. "Oinarrizko askatasun eta eskubideen alde" ateratu dute idatzi hau eta elgoibartarrei ere sinatzeko aukera eman nahi zaie. Batasunak gogoratazi nahi du alderdia legez kanpo uztearen kontrako martxa nazionala egingo dutela maiatzaren 19 eta ekainaren 9a bitartean; bestalde, kontzentrazioa egingo da gaur, barixakua, arratsaldeko 20:00etan Plaza handian eta ondoren manifestazioa. Manifestazioa deitu dute baita ere Bilbon, maiatzaren 5erako. Elgoibartik autobusa aterako da 10:30ean Plaza Handitik.

### Enpresak eratu nahi dituzten emakumeentzako formazio programa antolatu du Debegesak

Emakumeek jasaten duten langabezia tasa altua dela-eta, autoenpleguaren bidez aukerak eskaintzeko beharra ikusi du Debegesak. Horretarako, enpresak eratzeko asmoa duten Debabarretetako enaakurneei zuzendutako oinarrizko formazio ikastaroa antolatu du. Bertan besteak beste honako gaiak landuko dira: Enpresaren eraketa, marketing eta gestio komertziala, ekonomia eta finantza azterketa, giza baliabideen gestioa eta aukera berdintasuna. Ikastaroan parte hartu nahi duten emakumeek edo informazio gehiago nahi dutenek honako telefono edo helbide elektronikora jo dezakete: 943 82 01 79/ correo@debegesa .com



## ARMERIA ESKOLA

Goi-mailako L.H.ko Berariatzko Institutua  
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

2002/2003 11KASTURTEA



NIUGA GAILURAK  
"ALDE HINTZA"  
LLAC/EIAGVU.FA LIKIUANA



**HEZKUNTZ ESKEINTZA "A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)**

**BATXI LERGOA ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA**

**ERDI-MAILAKO MEKANIZAZIOA**

**ZIKLOAK**

**EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK**

**GOI-MAILAKO MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA**

**ZIKLOAK**

**PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA**

**INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA**

**TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK**

**ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK**

**1ZENA EMATEKO:**

**Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak, maiatzaren 2tik 10era,  
Sarrera zuzeneko Hexiketa Zikloak, ekainaren 3tik 12ra,**

Senarrak lagunduta hiltzea debekatu dio Giza Eskuldeen Europako Auzitegiak Diane Prett emakume britainiarrari.

## Eutanasia praktikatuko all zenuke gertuko pertsona hatekin?



### ALICIA IGLESIAS

59 urte, etxeoandrea

Ez, inorekin ere ez. Bizitza dagoen artean esperantza ere hor dagoela uste dut. Nik senarra horrela izango banu ez dakit hiltzeko erabakia hartuko nukeen.

### TANIA SANZ

15 urte, ikaslea

Berak nahiko balu neri ez jatan gaizki iruditxuko, baina legia zela dauan ikusitxa... Bizitzeko eskubidia dauan bezela, norbait bera dauan egoeran gustura ez badao, hiltzeko aukeria eman biharko jakon.



### JOSE MARIA BECERRA

25 urte, igeltseroa

Eutanasiarekin ados nago, baina egoerari begiratu beharko litzateke praktikatu aurretik. Gaixo dagoen pertsonak hiltzea eskatzen duenean horretarako gai izan behar du eta buruz ondo egon.

### JESUS LADRON

46 urte, delinentea

Bai, eutanasiaren alde nago. Gainera erremediorik gabeko kasu argia eta muturrekoa denean are gehiago. Beti ere gaizki dagoenak eskatu beharko luke hiltzea.



### GERONIMO ANGULO

45 urte, industrialia

Ez, nik azken unera arte borrokatuko nuke, esperantzak pisu gehiago du heriotzak berak baino. Baina norberari tokatu artean zaila da esatea, gainera kasu bakoitza ezberdina da.

### EDURNE GURRUTHAGA

37 urte, etxeoandrea

Bai, oso garbi dakat gainera. Ni ere kasu horretan egongo banintz neretzako hori nahiko nuke. Hola bizitzia ez da inontzako bizimodu egokixa.



Anchaistegui



Sanyfer

**ZERAMIKAK  
ETA ETXERAKO  
TRESNERIA**

Olaso industrialdea  
Olasope, 20870 - ELGOIBAR  
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71  
Faxa: 943 74 37 11

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan  
dizugu igogailua

**F7** 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behe 8 20600 EIBAR



# Farmazia okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
<b>3 Eixeberria</b> (Rasario kalea)	Etxeberria
<b>4 Etxebarria</b> (Sania Ana kalea)	Ibañez
<b>5 Ibañez</b>	Ibañez
<b>6 Bidosolo</b>	Bidosolo
<b>7 Etxebarria</b> (Santa Ana kalea)	Etxebarria
<b>8 Fernandez</b>	Fernandez
<b>9 Yudego</b>	Yudego

## FARMAZIAK

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38  
FERNANDEZ,  
Herriko enparantza 4, Garagarza,  
Tel: 943 75 61 42  
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze,  
Tel: 943 75 13 84  
• eguerdiko 2ak arte

## OKINDEGIA

14 igandea **Fotero**

## INTERE TELEFO

### OSASUNA

Lamaldiak .....	
Anbulatorioa .....	943 03
Planning-a .....	943 74
Alkoholiko Anonimoak .....	943 74
D Y A (anbulantzia) .....	943 46
Gurutze Gorria .....	943 74
Mendaroko Ospitalea .....	943 03
Odol Emaileak .....	943 74

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	902 54
PESA (Eibar) .....	902 10
Taxi geltokia .....	943 74

### UDALA

Udaletxea .....	943 74
Euskara Zerbitzua .....	943 74
Ongizate zerbitzua .....	943 74
Kultura Zerbitzua .....	943 74
G I G (Gazte. Informazio Gunea) .....	943 74
Udaltzaingoa .....	943 74
Udal Kirol Patronatua .....	943 74
Mendaroko Udala .....	943 75

### BESTELAKOAI

Elgoibarko Izarra .....	943 74
Kirolegia .....	943 74
Kontsumo Bulegoa .....	943 74
Libu rutegia .....	943 74
Musika Eskola .....	943 74
M intxeta .....	943 74
Parrokia .....	943 74
Postetxea .....	943 74
Gaztetxea .....	943 74

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza .....	943 74
Zaharren Biltokia .....	943 74
Eguneko Zentroa .....	943 74

### IKASTETXEAI

Haur Eskola .....	943 74
HHI (EPA) .....	943 74
Herri Eskola .....	943 74
LM.H .....	943 74
Institutua	
Arreiturre .....	943 74
Ezenarro (Meka) .....	943 74
I kastola .....	943 74
Pilar Ikastetxea .....	943 74

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	943 74
Ei Diario Vasco .....	943 74
Ei Correo Espariol .....	943 74
Zazpiki irratia .....	943 74
Egunkaria .....	943 30
Gara .....	943 31

## EuskoTren

## EuskoTren

kt 10131 SAIN

### DONOSTIA-BILBO

#### Egunero

Donostia maits 5.-t5 06.45... 20.45  
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02

\* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira eta orduero egongo dira

### BILBO-DONOSTIA

#### Egunero

Bilbo 06:00 7.00... 20.00  
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

• jaiegunetan 8.00ean hasiko dira eta orduero egongo dira

### MENDARO-ELCTOIBAR

#### Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

### ELGOIBAR-MENDARO

#### Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

#### Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## LARUNBAT GAUA

### DES.AUTOBUSAK

#### EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

#### ONDARROA-EIBAR

OrKialla	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	-23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

#### EIBAR-NUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

#### MUTRIKU-EIBAR

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

#### EIBAR-AZPEMA

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

#### AZPEITIA-EIBAR

Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101 210.

# Erreporto lea

## BONSAI, MINIATURAZIO BASO EDO ARTE

*Bon (zuhafiza) Sai flonfzia), horixe esan nahi du japonferaz bonsai lifizak; forontri gaineko zuhaiiza, alegia. 6i hitzok arle honen muina adierazten dute. Lorontzi txiki baiean, berez zuhaitz erraldai bat dena landatzean, bonsaigifek naturaren indarrak ordezkab.en ditu ekr baita naiworen ardurak bere gain hartu ere. Zuhaitzaren beharrak eta fo-*

*roniziak ipintzen dizicion eragozpenen arteko bat bi-latzea da bonsaigilearen eginbeharra. Jose 4droartlha elgaibartarraki urte dammatha bonsaiok egften. Ut netan 40 bonsaitik gora ditu etxean eta esaidi bakar batean laburiu digu zaletasun honen zergatia nbasoan banengo beezala sentitzen naiz bonsai bati begiratzen diodanean"*

### 16 urte bonsaigintzan

Jose Julian Marquez 28 urteko gazteari betidanik gustatu izan zaizkio naturarekin zerikusia duten gaiak. Liburu bateko argazkitan ikusi zituen lehen aldiz bonsaiak duela 16 urte, "japoniarrentzat jakintsuak bakarrik zirela bonsaiak egiteko gai irakurri nuen eta asko gustatu zitzaizkidan miniaturazko zuhaitz haiek. Beti pentsatu izan dut beste norbaitek egin dezakeena nik ere egin dezakedala eta neu ere bonsaigintzan hasi nintzen". Jose Julian autodidakta da; hau da, bere kasa ikasi ditu teknika eta sekretu guztiak. Hala eta guztiz, beti dagoela zer ikasia aipatu digu. "Bonsaiak egiteko 60 estilotik gora daude". Berak estilo librea lantzen du gehienbat; hau da, naturan ikusten duena imitatzen saiatzen da.

### 40 bonsai baino gehiago

Edozein zuhaitz motarekin egin daiteke bonsai bat, nahiz eta batzuekin zailagoa izan. Jose Juliani adibidez, pinuek eman diote lanik gehien. Etxeko terrazan 40 bonsai inguru ditu. Astigarrak, pagoak, lizarrak, pinuak, kuniperoak eta gliziniak dira bere bonsaietako zuhaitz mota ohikoenak. Bere kuttunenak bonsai basoak eta harriekin batera egiten dituen bonsaiak dira. Azken hauetan zuhaitzaren enborra harriarekin soldatzea lortu behar da. Soka eta alanbreen laguntzaz enborra harriaren pitzaduretara moldatzen da. Bere ametsetako bonsaia, eta hurrengo erronka, Astigar gorri japoniarra da. zuhaitz honek urte guztian mantentzen ditu gorri koloreko hostoak.

### Ez dute preziorik

Etxean dituen bonsaiei "karifm" handia hartu diela aipatu digu eta oraingoz ez ditu salgai jarri nahi. Berak egindako bonsaietako batzuk merkatuan 40.000 pezeta balio dezaketela dio. 100 urteko oliba zuhaitz bat da bere bonsairik preziatuena. Hala eta guztiz, hau ez da ezer 3 eta 4 milioi pezeta balio dezaketen bonsaiekin konparatuz. 400 urte dituzten bonsaiak ere existitzen ei dira, batez ere



*Jose Julian Marquezek esan digunez, bonsai bakoitzari 5-10 minutu eskaintzen die egunero. 40 bonsaitik gora ditu etxean*

ekialdean. Hauen zaintzaren ardura belaunaldiz belaunaldi pasatzen da. Jose Julianek gehiegizko ardura litzatekeela eta ez litzaiokeela tradizioa hautsi zuen familiako kidea izatea nahiko aipatu digu, txantxetan.

### Mendia lorontzi batean sartua

"Mendira joan beharrik gabe, etxeko terrazan, mendiaren miniatura bat edukitzea zoragarria da. Basoan banengo moduan sentitzen naiz bonsai bat begiratzen dudanean. Lorontzi baten tamainara egokitutako zuhaitz txikiak dira bonsaiak. Urtaroekin nola aldatzen diren ikustea ere zoragarria da, fruituak edo lorak dituztenean, historik gabe daudenean...". Hauxe da bonsaiek ematen dioten poztasuna. Horrez gain afizio erlaxantea dela gaineratu digu.

### Irudimena eta pazientzia

"Detalle txikiei kasu egitea eta pazientzia izatea beharrezkoak dira". Ezaugarri hauez gain, bukatu aurretik gauzak nola geratuko diren aurreikusten jakitea garrantzitsua dela aipatu digu "makil soil bat ikustetik urte batzuk barru bonsaiak izango duen itxura imaginatu behar da. Horretarako oso garrantzitsua da natura





# Erreportojea

## Bonsaien jatorria


begiraten jakitea, ahalik eta antzekotasun handiena lortzeko". Bonsaigintzan zuhaitzaren adina eta perfekzioa baloratzen dira; hau da, naturaren ahalik eta kopia onena izatea edo estilo bakoitzak dituen ezaugarriak zehatz mehatz betetzea.

### Bakoitzari 5-10 minutu eguneko

Bonsaiak egiteko eta zaintzeko lorazantzan erabiltzen diren tresna berdinak erabiltzen ditu; guraizak, alanbreak, ureztatzaileak... baina lorontziak egiteko imaginazioa erabiltzen du, kazuela zaharrak birziklatuz, etab. Bonsai bakoitzari 5-10 minutuko lana eskaintzen die eguneko, "ez dute mimorik eskatzen, baina maiztasunez ureztatu ezean lehortu egiten dira, lorontziak oso txikiak izatean ura lurrindu egiten baita. 2 urtetik behin sustraiak moztea eta lurra aldatzea ere komeni da". Donostian bonsaigintzako haurtzaindegi bat ere ba omen dago, oporretan joaten diren jabeentzat-eta.

### BONSAI BAT EGITEKO PROZESUA


Bonsai bat egiteko modu edo sistema bat baino gehiago dago. Hazia ercin eta zuhaitza hasi arte itxoitea da bat, bitartean nahi diogun itxura emanez, alanbre eta soken laguntzaz. "Lan asko ematen du eta denbora gehiago behar da, baina bonsai perfektua lortzeko modurik egokiena da". Beste sistema batzuk ere badaude, "esqueje" eta "planton" deiturikoak adibidez. Beste modu ohiko bat "aeodo" deiturikoa da. (Ikus behean)



Gustatu zaigun edo itxura polita duen zuhaitz baten adar bat aukeratu eta eraztun itxurako azal zati bat moztzen zaio. Ondoren, lurrarekin eta goroldio hezez estaltzen da egin diogun zauria eta plastiko batekin tapatu.



Zauriari aurre egiteko zuhaitzak bere defentsa sistemak martxan jartzen ditu. Zuhaitzaren sabia da odolaren funtzioak betetzen dituen, baina gehiagorik ez duenean, sustraiak hasten zaizkio zuhaitzari gaineratu diogun lur zatian.



Urte bat edo bi behar ditu prozesu honek. Gero, adarra sustraiak dauden tokitik moztu eta lorontzi batean sartuz lortzen da bonsaia.

○ Ekialde hurrunean, bonsaigintza, bertako kulturaren txertatuta dago. Esku jalcitunek aintzinatik gorde eta babestu duten artea da.

• Hasieran, naturatik zuzenean hartzen ziren tamaina oso txikiko zuhaitzak ziren bonsaiak. Monje budistek naturarekin bat egiteko eta honen arauak ikasteko erabiltzen zituzten, ekialdeko kulturetan lurra eta zeruaren arteko lotura direla lantzaileak sinisten baitute.

• Bonsaiei buruzko lehen idatzizko datuek Txinan dute jatorria, 8. eta 10. mendeetan. Hasieran monje budistak aritzen ziren bonsaigintzan, hauek ere mendetako tradizioari jarraituz seguru asko.



○ Ondoren, nobleziaren denborapasa izatera pasa zen eta azkenik 12. mendetik aurrera bonsaiak egiteko teknikak eta ezagupenak mundu guztian zabaltzen hasi ziren.

○ Garai honetan (12. mendea) sortu zen "bonsai" hitza Japonian. Hemen ere monje budistak izan ziren bultzatzaileak.

○ Gutxinaka, zuhaitzen ingurune elementuak gaineratzen hasi ziren.

Mendiak, errekak, lurra, etab imitatzeko, harriak, area, gorokloia eta garoak erabiltzen hasi ziren, bonsaien edertasuna handituz.

○ Bonsaiak egiteko teknikak 19. mende bukaeran iritsi ziren mendebaldera, ekialdeko kulturekiko jakinmin ikaragarria piztuz une berean, hain zuzen ere.



# APIRILA

2002-V-3

## JAIOTAKOAK



**Irati San Martin**  
Iriondo. Apirilak 10. Jose  
Ma San Martin eta Miren  
Iruone Iriondo.



**Aner Telleria Garcia.**  
Apirilak 15. Aitor Telleria  
eta Ana Ma Garcia.



**Eider Cerdeira Iranzo.**  
Apirilak 20. Imanol  
Cerdeira eta Ma Jesus  
Iranzo.



**Asier Ruiz Diaz.** Apirilak  
1. Ivan Ruiz eta Ma  
Cristina Diaz.

**Andrea Pedrosa Alberdi.**  
Martxoak 24. German  
Pedrosa eta Mirari  
Alberdi.

**June Beristain Ecenarro.**  
Martxoak 30. Joseba Iñaki  
Beristain eta Ma Amaya  
Ecenarro.

**Nagore Gonzalez  
Marquez.** Apirilak 13.  
Vicente Gonzalez eta  
Raquel Marquez.

**Nora Pedrosa Alberdi.**  
Martxoak 24. German  
Pedrosa eta Mirari  
Alberdi.

## HILDAROAK

**Pilar Gonzalez.**  
81 urte. Martxoak 30.  
**Nicolas Arriaga.**  
78 urte. Apirilak 2.  
**Pedro Echave.**  
98 urte. Apirilak 10.  
Ma **Lourdes Soraluze.**  
43 urte. Apirilak 14.  
**Eusebio Jose Gil.**  
87 urte. Apirilak 14.  
**Jose Ignacio Amesti.**  
49 urte. Apirilak 16.  
**Francisco Iriondo.**  
87 urte. Apirilak 19.  
**Alfonso Lodoso.**  
77 urte. Apirilak 21.  
**Jose Luis Miner.**  
40 urte. Apirilak 21.  
**Jesus Egaña.**  
79 urte. Apirilak 25.

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz [barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com) helbide elektronikora.


## EZKONTZAK

**Aitor Gurruchaga**  
**Echeverria eta Laura**  
**Bartra Garcia.** Apirilak 6.

# .ETXE BERRIA

eineta bitzua  
OSOA eta 2<sup>1</sup> ORDUKOA

*KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.

Donostia eta  
probirtziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Ivlobila) 608 77 07 01



# euskaltegi eta

Elgoibarko HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEARI eskainitako gehigarria

## "GERO ETA GEHIAGO ERABILTZEN DUT EUSKARA. LANKIDEEKIN, IKASLEEKIN ETA ETXEAN ERE ERABILTZEN DUT ALABAREKIN"

ALBERTO BERGARA

38 urteko eibartarra, Elgoibarren bizi da pasa den urtetik. Sei urte daramatza euskara ikasten, eta jendea ikastera animatu nahi du, argi baitauka euskara edozertarako izango dela ezinbestekoa epe laburrean.

### Nongoa zara?

Eibartarra naiz, baina urtebete daramat Elgoibarren bizitzen. Lana ere bertan egiten dut.

### Noiz hasi zinen euskaraz ikasten?

1996an hasi nintzen zerotik, baina urte batzuetan euskaltegi-  
ra joan gabe egon naiz, lanagatik batez ere. Gaur egun, zortzigarren urratsean ari naiz.

### Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?

Hemen bizi naiz eta biziko naiz, eta derrigorrezkoa da. Gainera, irakaslea izanda, nire lanerako ezinbestekoa da euskara jakitea.

### Euskara erabiltzen al duzu?

Gero eta gehiago. Lankideekin, ikasleekin eta etxean ere erabiltzen dut alabarekin. Ez asko, baina gero eta gehiago.

### Zaila al da euskara?

Uste dut baietz. Hizkuntza aberotsa da eta hain desberdina izanik, zaila da egitura berriak buruan sartzea. Baina pixkana-



ka, ikasten da. Lan asko egin behar da, baina ikasten da.

### Zer esanga zenioke oraindik euskaraz ez dakien bati?

Zer maila behar duen ikusi eta animatu egingo nuke ikastera, urte gutxira gero eta gehiago erabiliko da-eta euskara, edozertarako.

## MAISU MAISTREN



### ETORKINAK ETA EUSKARA

Azkenaldi honetan, asko ugaritu dira etorkinak gure herri eta hirietan. Beraien herrialde kuttuna laga eta atzerrira, hau da, beste nazio batera, lanera joan behar izateak, dudarik gabe, oso gogorra izan behar du, eta batez ere hizkuntza eta kultura zeharo desberdinak dituzten nazioetara jotzen dutenean.

Euskal Herrira ailegatutako etorkin hauek ciehienek euskara ikasi eta hemengo kultura ezagutu nahi izaten dute, Euskadi eta euskara uzartzen baitituzte, zorionez, eta ez Euskadi eta erdara, Euskal Herrian iaio eta urte asko eman dituzten askok bezala.

Mila esker eta bejondeizuela, euskaltegi-  
etorri eta euskara ikasten diharduzuen brasildar, kubatar, kolonbiar, errusiar eta abar guztioi.

**Agurtzane Epelde**



Alicia Gomez

# geloz g

**Zerk bultzatuta hasi zinen euskaltegian?** Nire euskara ez zen ona, eta beno, euskaraz ondo hitz egitea zen nire helburua eta lotsa kentzea.

**Elgoibarko bi euskaltegietan 160 lagun inguru zaudete. Zer iruditzen zaizu?** Ez dakit kopuru horrek esanahi ona edo txarra daukan.

**Euskara ikasteko zer behar da?** Gogoa, denbora, lotsa kendu eta euskaltegira etortzea

**Euskara desagertzeko arriskuan omen dago, zuk ere horrela ikusten al duzu?** Ez, gero eta gehiago erabiltzen dugu, baina erdaraz hitz egiten duten ume txikiak oraindik kalean ikusten ditut. Hori bai dela kezagarria.

**Zer lortu duzu euskaltegian zabilzanetik?** Lehen hanka sartzen banuen lotsatzen nintzen. Orain ere hanka sartzen dut baina ez dit inporta.

**Ingurukoek euskaraz egiten al dizute?** Batzuk ez dira auzartzen, baina nire errua da, betidanik beraiekin erdaraz hitz egin izan dut eta ohitura hori kentzea zaila da .

**Eta merezi al du euskara ikastea, dakienak egiten ez badizu?** Bai, noski, beti egongo da norbait hitz egiteko.

**Euskara batua edota euskalkia?** Momentuaren arabera.

**Zer esango zenieke euskara dakitenei?** Bai etxean, bai kalean, berba gehiago egiten saiatzeko.

**Euskara ikasteko ordaindu beharrik egongo ez balitz, jende gehiago animatuko al litzateke?** Ez dut uste diru kontua denik. Jendea oso komodoa da eta erraza da esatea: "Ez daukat denborarik".



(Erretratuan, ezkerretik eskumara): Carol, Mari, Izaskun (irakaslea), Sebas, Pilar etc

## Senegaleko gozte batek espainela ikasi behar du Grc Behartuta ikasi al daiteke hizkuntza bat?



**Carolina**  
" Ez dut uste hizkuntza bat behartuta ikas daitekeenik baina Granadan bizi nahi badu espainola ikasi behar du bere onerako. Lana aurkitzeko, lagunak egiteko..."

## AURREKO LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

		9							
		1	M	I	R	A	M	O	N
2	I	T	X	A	N	T	X	I	K
		3	U	R	E	P	E	L	
			4	1	Z	A	R	O	
				5	J	A	I	Z	K
									I
6	T	X	A	K	O	L	I	N	A
7	T	X	I	L	L	I	D	A	
			8	T	A	S	I	O	

### EZKERRETIK ESUMARA

1. Donostiako parke teknologikoa.
2. Nola esaten zaie ofatiarrei?
3. Nongoa zen Fernando Aire "Xalbador" bertsolari ezaguna?
4. Zein izen du Bermeo eta Elantxobe artean dagoen uharteak?
5. Gipuzkoako mendia, Hondarribian.
6. Getariako edaria.
7. Nork egin zuen *Aize Orrazia* eskultura?
8. Montxo Armendarizen film bat. Nafarroan errodatur.

### GOITIK BEHERA

9. Bilboko Aste Nagusiko pertsonaia.



## IRABAZLEA

PATXI AGEA da.

Saria: Bi pertsonarentzat afaria  
To etxe tabernan





Ivlarrio,  
M<sup>o</sup> Angeles

## GEL11110 FITXR

- Euskaltegia:** AEK
- Irakaslea:** Izaskun Belategi
- Urratsa:** 109
- Ikasle kopurua:** 11 lagun
- Batazbesteko adina:** 41 urte
- Asteko klase orduak:** 5 ordu
- Bitxikeriak:** Denak ernakumeak izatea

## iritzi

nodoko epoile botek agindu eta behortuto.



**M<sup>o</sup> Angeles**  
"Galdera zaila da baina nire ustez, arrazoituz erakutsi behar zaio Granadan bizi behar badu gaztelania ikasi behar duela"

**NOR** da gela animatzen duena?  
*Pilar eta Sebas.*

**NORK** egiten du gehien euskaraz euskaltegitik kanpo?  
*M<sup>o</sup> Angelesek.*

**NORI** esango zenioke puntualagoa izateko?  
*Mariri eta Carolinari.*

**NOREKIN** praktikatzen duzu gelan ikasitakoa?  
*Gelako guztiekin.*


**NORENTZAT** izaten dira irakaslearen haserreak?  
*Inorentzat ez.*

**NORENGATIK** hasi zinen euskara ikasten?  
*Gurengatik.*

**NOREN** apunteak hartzen dituzu zailantzak argitzeko?  
*Gure ondokoaren apunteak.*

**NORA** joango zinateke gelako guztiekin?  
*Edozein lekutara.*

## "IKUSI ETA IKAS1" LEHIAKETA



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, gurutzegrama ondo egitea besterik ez daukazu. Harrela egin asteen,, moztu papera marra Menetik eta bidali hanako helbidera maiatzaren 31 baino lehen. Bi pertsonarentzat afaria irabaz dezakezu, Toletxe tabernan. Bidali erantzunak helbide honetara: Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar, [arigera@infonegocio.com](mailto:arigera@infonegocio.com) Euskara ikasleok euskaltegiticrn ere entrega dezakezue.

### EZKERRET1K ESKUMARA

1. Laboa abeeslariaren izena.
2. Elgoibarko kanposantua.
3. 1901eko maiatzaren 14an balea azaldu zen herrio.
4. Oriotik Castrora joandako arraunlari eta patroia.
5. Larunbata Elgoibarren.
6. Arabako foru-polizia.
7. Portua esateko beste madu bat.
8. Zergatik da ezaguna Zugarramurdi?

### GOITIK BEHERA

9. Elgoibarko mendi baten eta mendizale elkartearen izena.

Parte hartzen cluzuenon artean  
2 LAGUNENTZAKO AFAR1A zozketatuko dugul

## ■ NOTIZIAK

### UDAL EUSKALTEGIKOAK SEGURAKO BARNETEGIAN

DEBABE. Udal Euskaltegiko 16 lagun (ikasle eta irakasle) Segurako barnetegian izan ziren iragan asteburuan. Egitarau oparoa izan zuten:


- Tolosako Gorrotxategi Museoa
- Ormaiztegi Zumalakarregi Museoa
- Zeraingo zerrategia, rneategia, museoa, kartzela...

Leku hauek bisitatzeaz gain, barnetegian Portugaleko Junior mailako txirrindulari selekzioarekin egin zuten topo eta argozkian ikusten den legez, txirrindulari proba batean lehenengo lau postuak lortu zituzten.

Urteak daramatza DEBABE Udal Euskaltegiak barnetegiak antolatzen eta hauen emaitzak ikusita, ez diote antolatzeari utziko, ez horixe!



### AEK EUSKALTEGIA KAFE ANTZOKIAN



AEKko ikasle eta irakasleok elkar ezagutzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko helburuaz, zenbait ekintza burutzen ditugu ikasturtearen barruan. Gaur, barixakua, 20:00etan irten eta elkarrekin afaldu ondoren, Ondarroan zabaldu berri den Kafe Antzokian izango gara euskara eta euskal kulturaren gune berria ezagutzeko asmoz.

## WEB-GUNE INTERESGARRIAK

[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

EUSKARAZKO SOFTWARE DENA KATALOGOAN

Udal Euskal Unibertsitatearen web gunean gaur egun euskaraz erabil daitekeen software dena katalogo batean bilduta dago. Katalogo hau sarean aurkitzen da [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean. Katalogoa clatu baseak atalean aurkitzen da eta zazpi sailetan banaturik dago: astioldia, hizkuntza, Internet, tresna orokorrok, irakas-kuntza eta joko pedagogikook, eta beste-lakoak.

[www.ivap.org](http://www.ivap.org)

Helbide honetan, besteak beste, bonako hau aurki daiteke:

- Duda-mucla: Euskararen inguruan izan ditzakezun zalantzak argitzen dituen zerbitzua.
  - Hiztegiak.
  - Administrazioa euskaraz alclizkaria. Bertan, artikulua, denbora-pasak, gramatika, ariketak...
- Xuxen Euskarazko zuzentzaile ortografikoa.

## arigera ren

Arigera proiektuak, **BERBA LAGUNA** egitasmoaren barruan, irteera bat antolatu du. Maiatzaren 18an, zapatuan, Ezkio-lb(ason dagoen IGARTUBEITI boserrira ioango dira. Baserrri hau XVI eta

XVII, mendeetakoa da eta zurezko euskal base-rria da. Elgoibortik goizeko 9:00etan irten eta eguerdirako etxera itzuliko dira. Izena emateko: Elgoibarko Izarra, 943 14 16 26, AEK edo Udal Euskaltegian.




Bestalde, datorren astean hastekoa zen Euskaltzaincliaren araugintza ikastaroa, bertan behera geklitu da, 5 lagunek bakarrik eman dutelako izena.

Apiriloren 13an egindako sukaldaritza ikastaroan, behe urratsetako 11 lagun izan ziren partaide.

mi  
>i<  
o  
i  
o





Tomas Aranberri Peruko Yungai herrian dago jn'rsiolari

*Tomas Aranberri Epelde, Elgolbarren jaio zen orain dela 45 urfe, baina aspaldi dela ez da gure herrian bizi. San Viatorren erlijiosoci da eta Valladoliden magisteritza ikasketak amaitu ondoren hamaika lekufon bizi izondakoa: Gastelz, Eskoriatza, Arrasate... Orain Perun du bere bizilekua, 2.500 metrora dagoen Yungay herrian eta urruffi egon arren teknologia berriez baliatuta berarekin harremanetan jartzeko aukera izan dugu.*

## "Elaoioartarron lana mundu aberats eta pobrearen artako tarteaz labetzea call

Zer dela eta joan zinen Perura?

Nire lehen erabakia Boli Kostara (Afrika) joatea izan zen, baina gauzak okertu egin ziren; Perukoak geroago irten zuen. Oso arrazoi sinpleagatik etorri nintzen; ez daukat ez emazterik, ez seme-alabarik, gauza handirik gabe bizitzen ikasi dut... pobreen alde egin dudana aukera besterik ez da.

Zu zauden inguruneke egoera zein da?

Yungay-ko probintzia lurralde oso pobrea da, Peruko mendialde oso bezala. Yungayko %65 baino gehiago pobrezia larrian bizi da; %90 ketxuaduna da eta 15 urtetik gorako %45 analfabetoa. Ogibide nagusia nekazaritza izanik, iraute ekonomia da nagusi.

Zein arlotan dituzte arazorik handienak?

Niretzat larrienak irakaskuntzak duen maila; desnutrizioa (%60) eta emakumeen egoera dira.

Alfahetatze proiektu hat ipini nahi duzue martxan, ezta?

Yungay eta Pueblo Libre egiten dugu, batez ere, lan. Une honetan 8 komunitatetan daukagu alfabetizazio talde bat, baina Pueblo Libre distritoak, 23 edo 24 komunitate ditu, eta Yungay, 50tik gora. Yungay-n Pedagogiko bat dugu, eta ehunka irakasle langabezia. Hauentzat, lehenengo, ketxueraz alfabetatzeko kursoak antolatzen ditugu, eta gero onenak aukeratu. Primaria amaitzen ez duten gazteentzat antolatzen dugu alfabetizazio proiektua. Hala ere, ez da helburu bakarra; eskubide guztiak landu behar izaten ditugu gure jendearen autoestimua lurpean baitago.

Guztira zein kostu dauka egitasmoak?

Jendea badugu, esperientzia ere bai, eta langabezia dauden irakasleentzat alfabetizazio lana baserrikoa baino erosoagoa da. Kostu ekonomiko handiena irakasleak ordaintzea da, eta hemengo soldatak ez dira oso handiak.

Elgoibartarrok nola lagun dezakegu proiektu honetan?

Elgoibartarron lehen lana Iparraldeko mundu aberats eta Hegoaldeko mundu pobrearen artean dagoen tarteaz jabetzea da. Bigarrena noizbehinka praka artean galduta ditugun txanponak talderen bati luzatzea. Hau baino garrantzitsuagoa, gure bizitza eta aukerak aldatzea da. Gure gizartean zoriontasuna progresoarekin lotu dugu, gero eta gauza hobek izatearekin, eta hori da gure kulturaren hanka sartzerik handiena, topatzen duguna hor ez dagoelako eta bizimodu hori besteen sufrimenduaren gainean eraikita dagoelako.

**"Apazorik larrienak irakaskuntzaren maila, desnutrizioa eta emakumeen egoera dira"**

Beste proiekturik ba al duzue epe laburrera zein luzera?

San Viator Zentroak arlo ugari lantzen ditu. Hezkuntzan alfabetizazio proiektua dugu; bestalde, ikasketetan zailtasunak dituztenentzat badugu eskaintza bat eta beka fondo bat ere antolatu nahi dugu, komunitateetako neskei ikasketetan laguntzeko. Martxan jarri nahi dugun proiektua ikasketak irratiz egiteko aukera da. Horretarako "Fe y Alegria" erakundearekin jarri gara kontaktuan, baina AM irrati bat behar dugu. Orain Cordillera Beltzeko Iau komunitatetako neska gazteekin ehungintza kooperatiba bat sortu nahian gabilta. Beste kontuetan, probintziako "Pobreziaren aurkako mahaia" zuzentzen dugu, eta distriotoetako komunitateen beharrik larrienak ikusten ari gara, akordio hauekin azaroko hauteskundeetan presioa egiteko.

## Musikari gaztetxoek maila ona erakutsi dute instrumentu taldeen I. lehiaketan

Irunera joan ziren bi sari nagusi eta Arrasatera eta Andoainera beste biak

Joan den asteburuan jokatu zen "Elgoibarko Herria" instrumentu taldeen I. lehiaketa Elgoibarko Musika Eskolan. Lau mailatan banatuta Euskal Herriko txoko ezberdin askotatik etorritako gaztetxoak aritu ziren, guztira 45 talde. Domekan talde guztiek beraien piezak eskaini ostean sari banaketaren txanda izan zen. Musika Eskolako Auditorioa gainezka izan zen irabazleak zein ziren jakiteko eta nola ez, beraien musika tresnekin duten abileziaz gozatzeko. Sariak Manolo Santos, Musika Eskolako presidentek, Rosa Agirreamalloa, Kutxa Fundazioko ordezkariak eta Gillermo Garate Alkateak banatu zituzten. Sariak eman ostean, talde irabazleek beraien piezak eskaini zituzten eta baita Katalin Bucataru Euskadiko Orkestrako bibolinjoleak eta epaimahaiko kideak, Tere Lazpiur Musika Eskolako piano irakaslearekin batera.



Elgoibarko talde batek 3. Saria eskuratu du 12 urtera bitarteko mailan

Antolatzaileak pozik

Lehiaketaren ostean antolatzaileekin izan gara eta esan digutenez, "jendearen harrera sekulakoa izan da eta zer esanik ez musikari gaztetxoek kalitatea. Lan asko egin dute eta hori ikusi da lehiaketan. Epaimahaikoek ere partaideen maila ona azpimarratu dute". Bestalde, Lehiaketan parte hartu duten Musika Eskoletatik eskerrak jaso dituzte eta antolaketa egokia izan dela esan dietenez oso pozik daude. Beraien helburuak bete dira eta gustura daude:

"Ikasleek lehiaketarako nola prestatu behar den ikasi dute.

Bestetik, musika ikasketak nahiko indibidualak izanik, honelako lehiaketek talde lana bultzatzen dute eta jende berria ezagutzeko aukera ematen diete musikariei". Beraz, esperientzia aberasganla izan dela ikusita, datorren urtean ere lehiaketa egiteko asmoa azaldu zuten.

### SARITUAK

#### 9 urtera hitartekoak

1. Irungo Musika Eskola
2. Azpeitiko Musika Eskola
3. Soraluzeko Musika Eskola

#### 12 urtera hitartekoak

1. Andoaingo Musika Eskola
2. Irungo Musika Eskola
4. Elgoibarko Musika Eskola

#### 15 urtera hitartekoak

1. Arrasate Musikal Musika Eskola
2. Gernikako Juli Foruria Musika Ikustegiu
3. "Bilibiurt Brass"- Labastida

#### 18 urtera hitartekoak

1. "Cuarteto Lau Hariak"-Irun
2. Donostiako Musika etu Danka Eskola
3. "Trio Zurgain"-Iruet

## Frai Sarmientoren omenez ospatuko da aurten Letras Gallegas Astea

Herri euskaldun eta galziarren literatura, folklorea eta gastronomia ezagutzeko eta elkartzeko aukera egongo da

Urtero maiatzaren hasieran egin ohi den moduan aurten ere Elgoibarren bizi diren galziarrek Letras Galegas jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Galiziako folklorea eta gastronomiaz gozatzeko izango da aukerarik. Izan ere, Galiza Etxeko zuzendaritza batzordeak herritar guztiei ospakizunetako ekintzetan parte hartzeko deia luzatu nahi die.

Frai Sarmientok, Galiziako berezko hizkuntzaren defendatzaile sutsuak, eskolatan, epaitegietan, elizetan zein administrazioan galegoa sartzearen alde lan egin zuen. Bera gogoan ospatuko dituzte aurten Letras Galegas jaiak.

Gaur iluntzean hasi eta asteburu osoan gaita doinuek jantziko dituzte Urasandi auzoa eta Elgoibar herriko kaleak. Bestalde, Montecarlo orkestrak dantzan jarriko ditu Herri Eskolako patiora gerturatzen direnak. Jendea dantzan jarritz baino, dantzan arituko direnak Haritz Euskal Dantzari taldekoak izango dira. Domeka eguerdian gaita taldekoekin batera emanaldia eskainiko baitute Galiziako eta Euskal Herriko folklorea elkartuz.

Gastronomia ere kultura denez, Galiziako jaki tipikoak dastatzeko

aukerarik ez da. faltako asteburuan. Haragi enpanada, lakoi eta belarri egosiak, olagarroa "a feira" erara eta Santiago tarta jango dituzte Urasandira joaten direnek, eta guztia Ribeiro eta Albariio ardoez lagunduta.

Elgoibarren bizi diren galziarrek ezetik herritar denek ere badute bertara joateko gonbitea. Herrian galziar asko dagoela kontuan hartuta, batzuk beraien jaioterria gogoratzeko eta beste batzuk bertako ohiturak ezagutzeko jai aproposak izango dira.





JOSE GURRUTXAGA. KORRIKALARIA

## "40 urtekin ametsetan ere ez naban pentsalzen 80 urte beteta korrika jarraitxuko nabanik"

80 urtetik gorakoan Espainiako Kros Txapelketa irahazi zenuen Toledon. Zer moduzko lasterketa izan zen? Karrera gogorra izan zan. Batez be, ekin eta 200 metrora hasi zialako lehen aldatsak. Gure edadian hain bizkor aldatsak topatzia gogorra eitzen da. Zorionez, jendiak bertako semia izango banintz moduan animau ninduen. Garaipena familixari, Mintxeta Atletismo Taldari, eta bereziki orain dela gitxi hil dan Fernando Uriarte "Olinpic"-i eskaini nahi diet.

Gazteagoa zinenean pentsatzen al zenuen 80 urterekin korrika egiten jarraituko zenuenik? Beteranuen mailan, 40 urtekin hasi nintzanian, ametsetan ere ez naban pentsatzen 40

urte eta gero korrika jarraitxuko nabanik. Askok esaten diate zorte handixa dakatela 80 urtekin korrika eitzen jarraitzen dotelako, eta halaxe da.

Azaldu iezaguzu zure sekretua, Jose? Ez dao sekreturik, entrenatzia bakarrik. Gorputza berez alperra da eta entrenatzera bihartu bihar da.

Zenbatean behin entrenatzen duzu? Astian 3 bider. Astelehena, asteazkena eta ostirala. Batzuetan belozidade serixak eitzen ditxut, 4-5 kilometro fondua lantzeko hurrenguan...


Noiz hasi zinen korrika? Gaztetatik gustau izan jata korrika eixia. Gaztetan, Odeoi zinia zauan tokixan, zelaitxo bat zakan klinika batian ibiltzen ginan korrika eta foballian. Gero, soldaduskan hasi nintzan karreretan, krosian batez be. San Fernando izan zan nere lehen ekipua.

Inoiz izan al duzu lesiorik? Bai, baina lesio muskularrak bakarrik, ez dot lesio larririk euki.

Zein dira zure distantziarik gustokoenak? 400 eta 800 metroko karrerak izan dia gehixen gustau jatazenak. Azken urtietan 100 eta 200 metroko karreretan hartzen dot parte. Krosian, berriz, noizian behin, batezbe beste karrerak preparatzeko.

Korrikalari gisa zein dira zure ezaugarriak? Beti euki dot nerbixo handixa eta karrera motzetan ibili izan naiz. 800 eta 400 metroko karreretan ere amaiera edo sprint ona euki dot.

Arriskutsua al da zure adinean korrika egitea? Bihar bezela zainduz gero ez. Urtero eitzen dot bihotzan



r- -91  
Adina: 80

r- Gustoko distantzia bat? 400  
L- metroak.

: Pista ala krosa? Pista

azterketia. Medikuak maratoirik ez eixeko, baina korrikan jarraitzeko esaten diate, baina sekula ez pasatzeko 150 pultsaziotatik. Horretxeatik ibiltzen dot pulsometrua.

Oraindik ere urduri jartzen al zara lasterketa bat hasi aurretik? Bai. Entrenamenduetan poliki zabizela ikusi leikezu, baina konpetiziva diferentia da, ez baidozu jakiten nola erreazionauko dozun.

Zein izango da parte hartuko duzun hurrengo lasterketa? Espainiako Pistako Atletismo Txapelketara jungo naiz uztailian Orensera. 100 eta 200 metruak korritxuko ditxut. Parte hartzaile gitxi espero dianez, bakarra ez banaiz, urrezko domina irabazteko marka batetik bajatzia eskatzen diate. Kontrarixorik ez dauanian, motibazio bat eukitzeko jartzen dabe. 100 metrotan 20'6 segundu eta 200 metrotan 45' baino gitxio eixia eskatzen diate.

Noiz arte korrika jarraitzeko asmoa? Ahal doten bitxartian Mintxetara juten jarraitxuko dot. Karrerak beste kontu bat dia, eta igual ailegau da momentua laster lagatzeko.

### GARAIPENAK

3 bider Espainiako Kros Txapeldun  
01977an Igualadan (Kataluinia)

01982 Gijonen

02002 Talavera de la Reinan (Toledo)

Espainiako Txapelketak. Pistan:

50, 100, 200, 400, 600 eta 800 metrotan izan da Espainiako txapeldun

Nazioarteko Txapelketak:

01977 Gotteborgeko (Suedia) Munduko

Txapelketa. 5. postua 400 metrotan eta 10. postua 800 metrotan. (800 metrotako serie batean beteranoen Espainiako errekorra hautsi zuen, 2'16" denborarekin).

01978 Viareggio (Italia) Europako

Txapelketa. 2. postua 400 metrotan eta 3. postua 800 metrotan

ODinamarca. Munduko Jokoak. 1. postua 400 metrotan eta 2. postua 200 metrotan.

## Tecnifuelle eta Unceta eskubaloiko taldeak Espainiako Txapelketaren azken faseak jokatzen ari dira Bartzelonan eta Leonen

asa den asteko alean, **P**Unceta Elgoibar nesken taldeak jubenil mailako Espainiako Txapelketaren azken fasea jokatuko zueIa Leonen, maiatzaren 1etik 5era, eman genizuen aditzera. Hala ere, ez da arrakastaz arrakasta dabilen talde elgoibartar bakarra; izan ere, Tecnifuelle Elgoibar, mutilen taldea, junior mailako Espainiako Txapelketaren azken fasea jokatzen ari da Sant Steve Sesroviresen (Bartzelonan). Badajozeko APB Joyeria Julio Corrales eta CEH Bach Sant Ubae taldeak izango ditu aurrez aurre talde elgoibartarrak bere multzoan. Maiatzaren 1ean eta 3an jokatu



behar zituzten partidak (Unceta eta Tecnifuelle taldeen emaitzak hurrengo alean eskainiko dizkizuegu) eta taldeko lehena bakarrik lortuko du finalerdiak jokatzeko sailkapena. Taldeko arduradunek adierazi digutenez partida bat irabaztea nahikoa izan daiteke larunbateko, maiatzak 4, finalerdietan sartzeko. Jose Manuel Ruizek entrenatutako

mutilek ez dute lan erraza izango, aurkariak ohorezko mailan jokatzen duten hainbat jokalarik baitituzte. Zorterik onena opa diegu bi taldeei lerro hauetatik.

## infantil mailako taldeak mailaz igotzea lortu du



**D**onostialco Santo Tomas Lizeoa taldeari 1 eta 0 irabazi zion C.D. Elgoibar infantil mailako futbol taldeak pasa den domekan (apirilak 28). Jende mordoak hurbildu zen Mintxetara jokalarik gaztetxoak animatzera, asko pankarta eta guzti igo ziren eta giro aparta sortu zuten. Garaipen honi esker ohorezko infantil mailan jokatuko dute elgoibartarrek datorren denboraldian. Liga amaitzeko partida bat falta bada ere, matematikoki lortu dute igoera. Guztira, 4 taldek lortu dute mailaz igotzea; Aloña Mendik, Santo Tomas Lizeoak, Urolak eta Elgoibarrek. Bestalde, zapatuan, maiatzaren 4an, Haundik Hernaniren aurka jokatuko duen partidua (Mintxetan 17:00) hasi aurretik, infantilak zelai erdira aterako dira zaletuak agurtu eta hauen txalo eta errekonozimendua jasotzera. Haundirentzat ere partida garrantzitsua izango da, igoera lortzeko borrokan sartuta baitaude.

**52g11<sup>0</sup>**

**ileapaindegia**

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 w. 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



## 3. Herri Kirol Topaketa maiatzaren 10ean egingo da Elgoibarren

Kaspilotak antolatuta eta Kutxaren laguntzarekin, maiatzaren 10ean, barixakuan, Herri Kirolen 3. topaketa egingo da Elgoibarren. Iaz Gipuzkoako 39 zentru ezberdinetako 2.005 ikasle jarclun ziren eta 28 herrik hartu zuten parte antolatu ziren 11 pilota eta herri kirol topaketetan. Elgoibarren 90 ikaslek hartu zuten parte. Topaketen helburua, ikasleei pilota eta herri kirolen joko ezberdinak eta hauen ezaugarriak ezagutu eta lantzeko aukera eskaintzea da. Bestalde, joko eta jolas hauekin guztiekin ondo pasa dezatela eta parte hartzea ahalik eta zabalena izan dadin sustatzea nahi dute antolatzaileek. Elgoibarren, Elgoibar Ikastola, La Salle Azitain (Eibar), Elgoibarko Institutua eta



Pilar Ikastetxea izango dira partehartzaileak. Plaza Handian izango da (euria eginez gero Ikastolako frontoian) topaketen topagunea.

### EMAITZAK

#### Futbola

Elgoibar 3 Bergara 2 (Jub.)  
Elgoibar 0 Segura 0 (1. erreg.)  
Elgoibar 1- Santo Tomas Lizeoa 0 (Inf.)  
Elgoibar 10 - Aitzgorri 2 (Kad.)  
Ordizia 0 - Haundi 2 (Pref.)  
Dumbua 4 - Elgoibar 1 (Neskak)  
Intxurre 1— Pedrusko 3 (1. erreg.)

#### Idarraga Kafeak 5, saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena

Jokalaria	Puntuak	Jokalaria	Puntuak
1-Salaberria	107	11-Jabi	18
2-Joseba Igartua	106	12-Goikoetxea	13
3-Loren	70	13-Caro	10
4-Elkoro	69	14-Bravo	10
5-Navarrete	66	15-Azpiroz	7
6-Leonardo	57	16-Jagoba	7
7-Ugalde	44	17-Aristondo	2
8-Txasio	44	18-Zubiaurre	2
9-Gurrutxaga	32	19-Mujika	2
10-Guinea	28	20-Toni	2

## V. Eskualdeko Futbol 7 Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea ireki da

**E**lgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du ireki dela V. Eskualdeko Futbol 7 Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea. **Interesatuak** maiatzaren 26a baino

lehenago eman beharko dute izena Olaizaga edo Ipurua kiroldegietan, txapelketa hau Elgoibarko eta Eibarko



udal kirol patronatuak antolatzen baitute, elkarlanean. Talde kopurua mugatua izango da eta 20 taldek eman dezakete izena herri bakoitzean. Inskripzioaren

prezioa 46'88 e izango da. Txapelketari ekainaren lean emango zaio hasiera eta finalak uztailaren 17an jokatuko dira.

## Espainiako futbol selekzioak Europako Txapelketa jokatzeko deitu du Evelyn Santos elgoibartarra



**E**spainiako Nesken Futbol selekzioak, Eibarko IMH Eibartarrak taldean jokaten duen Evelyn Santos elgoibartarra konbokatu du Suedian jokatu den 19 urtez azpiko Europako Txapelketan parte hartzeko. Maiatzaren 2tik 12ra bitartean jokatu da txapelketa eta adin maila honetan antolatzen den lehen txapelketa da.

### AGENDA

**Futbola**, Mintxetan

Zapatua, 4

17:00 Haundi - Hernani (Pref.)

18:45 Pedrusko —Segura (1. erreg.)

**Domekia, 5**

16:00 Elgoibar - Mutriku (Neskak)

## Igeriketa ikastaroak Olaizaga kiroldegian

**E**lgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroa antolatu du. Hasiera eta hobekuntza mailako ikastaroa izango da (3 urtetik aurrera) eta maiatzaren 20tik ekainaren 19ra bitarteko iraupena izango du. **Prezioak** honakoak dira: Nagusi bazkideak (34'70 e), Haur bazkideak (28:10 e). Bazkide ez diren nagusiak (41'50 e), Bazkide ez diren haurrak 34'70 e). Izen ematea maiatzaren 14tik 16ra bitartean egin daiteke Olaizaga kiroldegian.

# Merkatu txikia

## bsf Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangaldeko enpresa batek langilea behar du. Erref. 74786/3

• Markina-Ondorruko enpresa batek 1H11 mekanizatuan egindako langileo behar du. Erref. 76280/3

• Donostialdeko anpresa batek Diseinu programen irakaslea behar du. Erref. 76933/2

Aldi boterako kontratazio enpresa batek, Durangoko enpresen batearako semiautomatika soldatzailea behar du. Erref. 77163/1

• Durangaldeko enpresa batek Server SQL formatzailea behar du. Erref. 77266/2

\* Debarreneko enpresa batek soldatzailea behar du. Erref. 77363/2

• Durangaldeko enpresa batek telefono instalakuntzen departamenturako burua behar du. Erref. 77641/1

• Bordeleko (Frantzia) enpresa batek Giza baliabideetako teknikaria behar du. Erref. 77650/3

## Lana

ESKAERA

• Emakumeak bere burua eskaintzen du orduka, egunero izan gaite, garbiketa lanak egiteko. Tf 943742201

• Emakume batek bere burua eskaintzen du lanerako (ordukari) Tf 943 74 35 05

• Pertsona arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona edateh. lak zaintzeko, egunez zein gauzez. Carmen. Tf 678 38 35 61

• Emakumea eskaintzen da edateko pertsonak edo haurrak zaintzeko, Esperientzia daukat. Meritxe. Tf 943 17 47 70

• Asteazken zehar tabernan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta euskaraz badakit. Tf 699 18 32 99

ESKAINNTZA

• Begiraleak behar dira, Abentziamaikarekin uztailan lan egiteko. Tf 943 74 16 26 telefonora deitu edo Elgoibarko Izarratik pasatu. (Itziar)

• Sukaldariak behar dira Atxutxiamaikarekin uztailan lan egiteko. ex Tf 943 74 16 26 telefonora deitu edo Elgoibarko Izarratik pasatu (Itziar)

\*Emakumea behar da bulegoak garbitzeko. Tf 943 74 39 75 (deitu 21:30etatik 22:00etara)

o Perisonea bat behar da denda baterako. Tf 943 74 08 50

• Pertsona bat behar da goizeko etxe bat garbitzeko. Tf 629 41 59 84

• Neska bat behar da merkatu plazako tabernan lan egiteko. Tf 943 74 18 24

• Kamareroa behar da Tf 943 74 42 65

o Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Aste barruan arratsaldean, eta asteburuetan. Tf 943 74 28 97

• Mintzetako tabernarako pertsona bat behar da. Orduetako onak. Tf 610 50 20 41 edo Tf 678 43 76 33

## Elme 11112zak

• Elgoibarren pisu bat behar dut olakairuan. Tf 943 74 17 57 (Richard)

o Etxebizitza edo logela hartuko nuke alokairuan, Tf 699 60 06 08

• Pisua alokatuko nuke. Kristina Tf 646 36 09 14

• Logela alokatzen da, sukaldaria erabiltzeko eskubidearekin. Tf 943 74 88 53

• Deban duplexa alokagai, itsasora begira, udarako. Tf 656 71 79 84

## Garajeak

• Lokala salgai edo alokatzeko, San Roke 5 kalean. Tf 943 74 18 37

• Garaje itxia salgai Leku Ederren Tf 630 44 36 04

• Garajea salgai Arregitorre kalean. Bi autorentzat du lekua. Prezio interesgarria. Tf 943 74 00 09

• Garajea alokatzen dut Kalamua kalean. Tf 943 74 13 82

• Garajea salgai Arregitorre kalean. Bi autorentzat du lekua. Prezio interesgarria. Tf 943 74 00 09

\* San Roke kalean lokala txikia alokatzen dut. Estudio, biltegi edo trastero moduan erabiltzeko egokia. Tf 943 74 14 36

• Trasteroa saltzen dut Maaloko etxe berrietan. 5,5 m2 ditu. Tf 605 77 34 53 (20:00etatik aurrera deitu)

• Lokala alokatzen dut San Roke kalean. Estudio, bulego edo trasterorako erabil daiteke. Tf 655 73 89 56. (21:00etatik 22:30era bitartean deitu).

## Salerosketak

• Logela salgai. Oso merke, Tf 943740079

\* Renault super 5 grisa salgai. CDo dauka. 900 euro. Tf 661 62 62 60

• Eski para saltzen dut. Rosignol Open markakoa. Oso merke. Tf 943 74 46 61 edo Tf 639 05 55 17

• Scott Xri zuria saltzen dut Ilania zuriek. 1.200.000 pezeta. Tf 616 26 62 12

• Peugeot 206 autoa salgai. 0323 BKR Jose Manuel is Tf 605 75 56 39

• Bikienizako Arrue markako kotxea salgai, hainbat konplementorekin. 200 euro, losu. Tf 943 17 70 25

• Bi ohe salgai, 1,90x90ekoak. Ohe-estalkiak oparitu egiten ditut. Koltxoi eta somier handiak ere salgai (15 egun baino ez dute) Tf 626 02 71 93

• Bigarren eskuko larruzko kazadora saltzen dut X-L neurrikoa. Oso egokero onean. 100 euro. Tf 657 77 98 37 Igor.

## Bestelakoak

• Ingelesko klase partikularrik ematen dira Tf 605 73 95 36

• Belarritako bat aurkitu dut San Pedro aldean. Udaltzainen egoitzan utzi dut.

o Apirilaren 25ean eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Madala inguruan. Norbaitek aurkitu baditu, deitu Tf 943 74 18 80 telefonora. Eskertuko da.

• Karitasek seheska bat behar du. Norbaitek soberan badauka, mesedez, ekar dezala.

• Apirilaren 3an koticea utzi nuen Santa Ana kaleko rotondaren goiko parkinean 8:45ean eta arratsaldean kotxera bueltatzean atzeko parte guztia barruratz sartuta zeulcan. Zerbaite ikusi duenak, deitu, mesedez. Arantza Tf 686 22 44 38

• Graduamako betaurreko gorriak galdu ditut. Funda gorria dule. Tf 943 74 08 04

• Larunbat eguerdian (apirilak 20) Roller ball markako patinete bat utzi nuen aiazima Plaza Handian. Norbaitek aurkitu bodu, deitu Tf 943 74 13 40 telefonora.

## Agurrak



• Zorionak Julene-ri, hifaren 3an 3 urte bete dituelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak Nora, maiatzaren 4an 10 urte egingo dituzulako, familiako eta iagunen partez.

### OFIARRA:

Merkatu Kikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Partikularrik

• Ingelesko klase partikularrik ematen dira. Tf 605 73 95 34.

• Ingelesko klaseak ematen dira Mendaran. Tf 943 75 52 09 / 943 74 29 84. Lorea.

\* DBHko ikasleentzat klase partikularrik ematen ditut. Esperientzia daukat Tf 943 74 42 06.



## BEKAK

**Ikerketa beka** Ba-  
randiaran Fundazioak Jose Miguel Barandiaran iker-  
keta beka antoldu du. 2002ko deialdi honi dagokion  
ikerketa etnologiarako izango da. **Proiektua maiatzak  
17a baino lehenago aurkeztu behar da.**

## Italia

**Hezkuntza**, Kultura eta Kirol Ministerioak 7 beka es-  
kaini ditu Italiako unibertsitate batera joateko.  
ko irakoslea izatea eta Lehen Hezkuntza edo Bigarren  
Hezkuntzako irakoslea izatea eskatzen da.  
**Epea: maiatzak 7.**

## JARDUERAK

**Auzolandegiak**  
Aterpe Caritasek 2002rako auzolandegiak antolatu  
ditu 18 urtetik gorakoentzat. Auzolandegiak 2 asteta-  
kook izango dira eta uztailean, abuztuan nahiz iraien  
an gauzatuko dira. **Epea: uztailak 1.**

## Auzolandegiak

Donostiako Caritasek auzolandegiak antolatu ditu.  
Gaia 3. Mundua izango da eta Alkon burutuko di-  
ra. 17-20 urte arteko gazteel zuzendua dago.  
**Epea: ekainak 30.**

## Auzolandegiak

Gizoi Fundazioak 18 urtetik gorakoentzat 2002ko  
Auzolandegiak antolatu ditu. **Epea: uztailak 1.**

## LEHIAKETAK

### Internet

Kutxa Miramon Enpresa Digitalek Ekintzaileen 111. Ku-  
txa Lehioketa antolatu du. Internetekin zerikusi duen  
enpresa-proiektu berri bat aurkeztu behar da. 1. Sa-  
ria, 30.000 e; 2. Saria, 24.000 e; 3. Saria, 18.000  
e; 4. Saria, 12.000 e; eta 5. Saria, 6.000 e. Proiek-  
tua aurkezteko **epea: irailak 30.**

## IKASTAROKA

### Lankidetzak jokoak

InterRed Euskal Herriak bakea eraikitzeko lankideiza  
jokoen tailerra antolatu du. Ikastaroa **maiatzaren 11  
eta 12an** izango da.

## Haurralde

Haurralde Fundazioak "Nazioarteko Adopzioan Lan-  
guntzen duten Erakundeon Kudeaketa eta Antolamen-  
dua" izeneko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa 25 or-  
dukoa izango da. **Epea: ekainak 5.**

## LANA

### Liburuzaina

Donostiako Musika eta Dantzako Eda! Eskolan liburu-  
zain bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Unibertsita-  
teko Diplomow titulua, Ingeniari titulua edo Arkitekto  
titulua edo euskarazko 3. Hizkuntza eskakizuna eska-  
tzen da. **Epea: maiatzak 13.**

## Idazkari-koordinatzaileak

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak idazkari-koordina-  
tzaile bat behar du. Taldean lan egiteko prest egotea,  
kunikaziorako trebetasuna eta antolaketan espe-  
rientzia eta gaitasuna izatea eskatzen da.  
**Epea: maiatzak 10.**

## Musika irakasleak

Donostiako Musika eta Dantza Udak Eskofak 3 irakas-  
le behar ditu: teklatuak, gitarra elektrikoa eta baxu  
elektrikoa. Oposizio-lehiaketa bidez aukeratuko da.  
Unibertsitateko Dipkmatu tintiva, Ingeniari Teknikoa-  
ren titulua edo Arkitekto Teknikoaren titulua eta euska-  
razko 2. Hizkuntza-eskakizuna eskatzen da.  
**Epea: maiatzak 14.**



Zorionak **Garazi**, mainrzcik  
5ean urteok beteten dituzulako,  
famiakoen partez.



\*Zorionak **Nora Bastida**, hifaren  
29an 6 urtetxo beteko dituzulako,  
famiakoen partez.



\*Zorionak **Mikel Anakaberi**,  
maiatzaren 5ean 10 urte bete-  
ko dituzulako, famiakoen par-  
tezt eta bereziki lon lehengusua-  
ren partez.



\*Zorionak **Unai**, hilaren Tean 4  
urte bete dituzulako. Famiakoen  
partez eta bereziki asko maite  
zaituen Aneren partez, musu han-  
di bat.



Zorionak **Ion Casado**, maiatza-  
ren 5ean 10 urte beteko dituzula-  
ko, famiakoen partez, eta bere-  
ziki Ikerren partez.



\*Zorionak **Maialen**, zure 8. ur-  
tebetetzean, eta muxu handi  
bat etxeko guzlien partez.



Zorionak **Belen**, maiatzaren 6an  
urteak beteko dituzulako, guraso-  
en, ahizparen eta koinatuaren  
partez.



♦ Zorionak **Ion Odriazolari**, maia-  
tzaren 1ean urteak bete dimelako.  
Etxeko eta batez ere Asier eta  
Unairen partez.



## Ignacio Zuloaga

**Institutua**  
Jardineta, zlg • Eibar  
Tel. 943 208 349

**BATXILERGO ARTISTIKOA**  
*t Deba eskualdeka zentru bakarra*

**HEZIKETA ZIKLOAK**  
*mailakoa: ingurugiro kimika*  
*Erdi tnailakoa: laborategia*

**HIZKUNTZA EREDUAK**  
*,04 eta D ereduak*  
**22 urteko tradizioa idaseak euskaraz ernaten**

**MATRIKULA EPEA** zabalik maiatzaren 2tik 10ra.

# agenda

L,91

alegas

**19:00** Jaien hasiera. Txapligu jaurtiketa eta Galiziako janari tipikoa dastatzeko aukera.

**22:30** Dantzaldia "Montecarlo Orkestrarekin, Herri Eskolako patioan

**10:30** Txapligu jaurtiketa

**12:30** Gaita taldearen emanaldia Urasandin

**13:00** Galiziako produktuen dastaketa2

**13:30** Montecarlo orkestraren emanaldia

**16:30** Haurrentzako jolasak

**18:00** Galiziako produktuen dastaketa

**19:30** Gaita taldearen kalejira Elgoibarko kaleetan eta herriko agintarien agurra Foruen Enparantzan

**20:00-23:00** Montecarlo orkestraren emanaldiak

10:00 Meza, San Bartolome Parrokian, herrian hildako galiziarren omenez

**11:30** Diana, Elgoibarko txistulari taldearen eta gaita taldearen eskutik

**13:30** Haritz Dantzari taldearen eta gaita taldearen emanaldia Herri eskolako patioan

**14:30** Bazkaria Galiza Etxean

**18:30** Gaita taidearen agurra

**19:30** Jaien amaiera

## 5 DOMEKIA

**10:30** BATASUNAREN

**ILEGALIZAZIOAREN AURKAKO  
MANIFESTALDIRA JOATEKO  
AUTOBUSA**

Plaza Handian

**11:00** HIRUKURUTZETA EGUNA

Meza Pago Bedeinkatuan

Ondoren, salda eta txorizoa bthlatuko dira.

Antolatzaileak: Atsedeen Txabolak Elkarte  
eta Txurumiko Kultur Elkarte

## 10 BARIKAKUA

**19:00** FERDINANDO SCIANNAREN  
ARGAZKI ERAKUSKETAREN  
INAUGURAZIOA

IIIIII".

Izenburua: "Bi idazle"

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Ekainaren lera arte

Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte

**19:00** EDUARD IBAÑEZEN ARGAZKI  
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Izenburua: "Soma"

Kultur Etxeko sotoan

711

Ekainaren lera arte

Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte

**22:15** DAMIAN MUÑOZEN DANTZA  
IKUSKIZUNA

"Las Mentiras del Entusiasmo"

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Udal Musika eta Dantza

Fundazioa



ZINE  
kluba



## "YIYI"

Zuzendaria: Edward Yang.

Antzezleak: Wu Nianxhen, Kelly Lee, Issay Ogassa.

Zuzendari Onenaren Saria Cannes 2000 Zinemaldian. Espainiako estatuan oraindik ezagutzen ez badugu ere, E. Yang zine-zuzendari taiwandar famatua da. Yi Yi filmean hainbat gairi buruzko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu: denboraren iragana, itxurakeriak eta errealitatea, pertsonaien nahasmen morala... Hau guztia azaltzeko Taipeiko erdi mailako familia bat hartu du olnarrizat. Itxuraz familia zorionsua dirudi, haina gauzak okertzen hasiko dira. Amona gaixotu egingo da, aitaren enpresa porrot egiteko zorian dago eta gaztetako amorante batekin topo egingo du. Ama ere depresio sakon batean sartuko da.



## IKASTAROAK

Dantza ikastaroa

Haizea Emakume TaIdeak dantza ikastaroak antolatu ditu. Dantza karibearrak eta sebillanak ikasteko aukera izango da ostegunero 15:00etatik 16:30etara Haizeakoek Pedro Muguruzako ikastetxe zaharretan duten egoitzan. Interesatuok Pitxintxura joan lehen bailehen, plazak mugatuak baitira.

## JAIK

**Hirukurutzeta Eguna**

Atseden Txabolak eta Txurumiko Elkarteek, Bergara, Soraluze, Azkoiti eta Elgoibarko Udalen laguntzarekin Hirukurutzeta Eguna antolatu dute. Domekan, maiatzaren 5ean hasiko dira ekintzak goizeko 11:00etako mezarekin. Pago Bedeinkatuaren alboan izango da meza. Ondoren salda eta txorizoa banatuko dira. Eguerdiko 13:00etan hasiko dira Hirukurutzetarantz igotzen. 14:00etan, berriz, bazkaltzeko atsedenaldia egingo dute (bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du). Bazkal ondoren, kafea egongo da nahi duen guztiarentzat. Arratsaldeko 15:30ean erromeriaren txanda izango da Ainhoa eta Nerea zaraustar trikitilariak aiainuta. Arratseko 18:00ak inguruan jarri dute menditik jeisteko ordua.

## ERAKUSKETAK

**Bi argazki erakusketa**

Ongarri Kultur Elkarteak bi argazki erakusketa antolatu ditu maiatzaren 10etik ekainaren 1era bitartean. Batetik, Eduardo Ibañezen (Tavemes de la Valdigna, Valencia, 1954) "Soma" argazki bilduma izango da ikusgai Kultur Etxeko sotoan. Erakusketa honetan giza gorputzak berezko duen lengoia aztertzen du artistak. Erakusketa honetarako ezpreski egindako mural izugarri bat (1,5 x 9 metro) ekarriko du, Bestetik, Fernando Sciannaren (Sizilia, 1943) "Bi idazle" erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Erakusketa hau txuri beltzean ateratako 45 argazkiz dago osatua: Leonardo Sciascia idazle italiarraren 22 irudi eta Jose Luis Borges idazle argentinarraren 23 irudi. Gertutasunetik, maitasunez, errespetuz, lotsaz eta berotasunez ateratako argazkiak dira.

## MATRIKULAK

**EPA-n izen ematea**

Helduentzako Hezkuntza eskaintzen duen zentruak, EPA-k, izena aurretik emateko epea maiatzaren 2tik 10era bitartean izango dela zabalik aditzera eman nahi du. Alfabetatzea (idazten eta irakurtzen ikasi edo hobetu), atzerritarrentzat ikastaroak (gaztelaraz hitz egin, irakurri eta idazten jakiteko) edo ESO-ko graduatua dira EPA-ren eskaintzetako batzuk. Interesatuak edo izena eman nahi dutenek P. Muguruza Usetxe kalea z/g helbidera joatea besterik ez dute 15:30etatik 20:30etara bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 08 80 telefonora deitu, aurrez aipaturiko ordutegian.

## KARTEI DEGIA

**ELGOIBAR**

**Ilerriko Antzokian**

**"Una mente maravillosa"**

3, barixakua: 22:15

4, zapatua: 19:30-22:15

5, domekia: 19:30-22:15

6, astelehena: 22:15

**"E.T. E1 Extraterrestre"**

5, domekia: **16:30**

**"Y1-Yr**

7, martitzena: 21:30

9, eguena: 22:15

**EIBAR, Unzaga**

**"Nunca hables con extraños".**

3, harixaktut: 19:30-2<sup>1</sup>:15

4, zapatua: 17:00-19:30-22:30

5, domekia: 17:00-19:30-22:30

6, astelehena: 19:30-<sup>1</sup>:15

7, martitzena: 19:30-<sup>1</sup>:15

8, **c\_tr** 9:30-22:15

**Rialto:**

**"Showtime"**

3, harixa lía: 19:30-<sup>1</sup>:15

4, zapatua: 17:00-19:30-<sup>1</sup>:15

5, domekia: 17:00-19:30-2<sup>1</sup>:15

6, astelehena: 19:30-22:15

7, martitzena: 19:30-<sup>1</sup>:15

**AZKOITI, Blizartxo**

**"Hable con ella"**

3, barixakua: 22:00

4, zapatua: 22:00

5, domekia: **17:15-19:30-22:00**

6, astelehena: 20:00

BARRIEN ez du gela lizekeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



### "UNA MENTE MARAVILLOSA"

Zuzendaria: Ron Howard.

Antzezleak: Russell Crowe, Ed Harris, Jennifer Connelly.

Matematiketan graduati ostean, John Forbes Nash Jr. gaztea Princeton unibertsitate prestigiotsura iritsiko da beka garrantzitsu bati esker. Nash-ek berehala lagako du bere izateko era xelebreairean arrastoa, klasean ez du arretarik jartzen eta giza harremanetarako arauak ere ez die jaramonik egiten. Obsesio bakar batek gidatzen du bere bizitza, ideia original baten bilaketak, alegia. Filme hau, 1994an Nobel saria jaso zuen John Forbes Nash matematikoaren bizitzan oinarrituta dago. Nash-ek ezquizofrenia paranoide gaixotasuna gaundititza lortu zuen.

N



# A

ste honetako argazkia, Ma Pilik ekarri digu.


1951ko irailaren 16an, Patxi Zelaia eta Jose Ma Iriondo "Sanson" Santa Eufemiako jaietara abiatu ziren. Erromerixan dantzan-eta egin zituztela

bai, baina informatzaileak adierazi digunez, protagonistek ez diete antzik ere ematen neska bi hauei. Nortzuk ote? Ezkerretik hasita, **Patxi Zelaia, neska ezezaguna, neska ezezaguna,** eta **Jose Ni Iriondo "Sanson"**.

## ESKERTZA




2002ko apirilaren 26an, 86 urte zituela hil zen **TORIBIO OYARBIDE ALBERRO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA




2002ko apirilaren 14an, 87 urte zituela hil zen **EUSEBIO GIL AULESTIARTE**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA



2002ko apirilaren 19an, 87 urte zituela hil zen **PATXI IRIONDO TOTORIK**Aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# ZELETA BARAZKIAK

**KONPROMISOA eta ERANTZUNA**



**etxean landatzeko  
tomate hibrido landareak**



**ZELETA/1 baserria • San Migel Auzoa**

tel.: 609 35 76 19



**ELGOIBAR B.H. institutua**  
**2002/2003**



Arregitorre, 2

Tel. 943 M 80 19

Faxa. 943 74 82 30

E-posta: [bulegoa@elgoibar.hezitek.net](mailto:bulegoa@elgoibar.hezitek.net)

web: [www.elgoibar.heritek.net](http://www.elgoibar.heritek.net)

## BATXILERGOETAKO HEZKUNTZA ESKAINITZA

**NATUR eta OSASUN ZIENTZTEN BATXILERGOA**

■ Zientifiko-Tekniko aukera    ■ OSasun aukera

**GIZA eta GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA**

■ Gizarte Zientzien aukera    ■ Humanitate aukera

**TEKNOLOGIAREN BADULERGOA**

**BADILERGORAKO AURREMATRIKUA EPEA: rniaztaren 2tik 10ra arte**

**600 ikasle inguru** beraien etorkizuna jorraizen • **45 ikasgairen** eskainiza. Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan • **Azpiegitura teknologiko aurreratuena**. Eiorkizunerako prestakuniza ziurtatuz • **ISO 9002 kalitate ziurtagida**. Prozedura garden eta kontrolduak • **80 lizenziatu, ingeniari edo diplomatu**. Unibertsitate eta goi mailako zildoetarako **prestakuntza zuzerta** **Selektibitateko emaitza ezin hobekak**.





DAMIAN MUÑOZ DANTZA TALDEAK  
AURKEZTEN DU

# LAS MENTIRAS DEL ENTUSIASMO

malitzak 10  
Heniko Antzokian 22:15etan

Wim Wendersen "El cielo sobre Berlin"  
filman inspiratutako ilmskizuna da.

Aske izateko borroka.  
Norbere burua bilatzeko aldarrikapena.

Gizakiarm usteltzaile eta, etsai  
okerrenaren aurka, borroka bat .

"Las mentiras del entusiasmo"  
6 antzezlek osatutako koreografia.



musika eta dantza  
fundazioa



Foru Aldundia



SAREA



kultura saila

